Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Koldo Torre Iturbe Gardie*

*Bermeo*
*Bizkaia (1933)*



Aurkibidea

## Biografia



Bermeoko Katokalen jaio eta Gaztelun hazi zen hiru neba-arrebako familia batean. Gurasoak ere bermeotarrak zituen. Bere aita Matxitxakoko bataila ezagunean Bou Navarra itsas armadako itsasontzitik bizirik irtendako bat izan zen, urte luzez heriotz-zigorrera kondenatua. Umeetan fraideetan ibili zen, baina bderatzi urterekin eskola utzi zuen. 7-8 urterekin lanean hasi zen, eta hamar urte egin orduko itsasoan hasi zen lanean "Mendiluz" ontziko mutil bezala. Arrastrerotan ibili zen urte askoan, eta patroi titulua atera ostean, 21 urtetatik baxurako patroi. Tartean zazpi urtez merkantean ibili zen.

## Zintak

### BRM-040

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-12-14
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

### BRM-041

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-12-14
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. 'Gardie' familiako ezizena

- **Erref**: BRM-040/002
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:00:59. **Bukatu**: 00:02:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

**Laburpena**:
Gardie ezizena du familiak. Marrazoaren antzeko arraina da gardie. Oso haragi gozokoa omen lehortzen utziz gero.

## 2. Osaba Daniel, Agirre Lehendakariaren konfiantzazko gizona

- **Erref**: BRM-040/003
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:04:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Aitaren familian sei anaia ziren, horietatik lau gerran ibilitakoak: aita Bou Nabarra-n, beste bat Gordexola Batailoian teniente, osaba Jesus Mediterraneoan Errepublikaren armadan, eta osaba Daniel Agirre lehendakariaren patruilariko mekaniko. Osabak eta Bermeoko talde batek pasatu zuten Santandertik Frantziara Agirre Lehendakaria. Osaba Danielek bizkartzain lanak eta beste lan batzuk egiten zizkion Agirre Lehendakariari Frantzian eta Bartzelonan.

## 3. Agirre Lehendakaria ihesi munduan zehar

- **Erref**: BRM-040/004
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:06:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena**:
Eusko Jaurlaritzak antolaketa ona omen zuen. Bermeoko arrantza-ontzi asko joan zen Ipar Euskal Herrira gerra denboran. Arrantzan egin eta hortik ateratzen zuten diruarekin finantzatzen zuten hainbat gauza. Agirre lehendakariak ihesi ibili behar izan zuen munduan zehar kamuflatuta; azkenean Buenos Airesen azaldu ei zen. Osaba ere berdintsu, nahiz eta eskala apalagoan. Casablancara (Maroko) egin zuen ihes, eta han geratu zen bizitzen.

## 4. Erbestetik itzulitako iheslariak preso hartu

- **Erref**: BRM-040/009
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:12:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
II. Mundu Gerra denboran, alemanak hurbildu zirenean, askok ihes egin zuten Frantziatik Ameriketara. Baina andreak eta umeak, batez ere, Eusko Jaurlaritzak ipinitako tren batean etorri ziren Irunera. Esana zieten ez zitzaiela ezer gertatuko, baina denak preso sartu zituzten. Gero batzuk libre utzi zituzten eta beste batzuk Larrinagako kartzelara eta abar sartu zituzten.

## 5. Idazle ingelesak liburua dedikatu gudariei

- **Erref**: BRM-040/012
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:13:28. **Bukatu**: 00:14:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Matxitxakoko Batailaz. Idazle ingeles batek liburua dedikatu zien gudariei. Canarias armada-ontziko buruak gudarien bizitza barkatzeko eskatu zuen. Haren familiaz xehetasunak.

## 6. Matxitxakoko bataila

- **Erref**: BRM-040/014
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:19:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Matxikako bataila: Baionatik Bilbora joan behar zuen Galdames kargaontziak, eta hura jagoten irten ziren lau "bou" edo patrullera. Horietako bi aldendu egin ziren, eta Canarias guda-ontzi faxistarekin egin zuten topo. "Bizkaia" sutan sartu zen Bilbon.

## 7. Aita Matxitxakoko batailatik bizirik irten

- **Erref**: BRM-040/018
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:24:50. **Bukatu**: 00:26:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Amak arreba gaztea kartzelara eraman ohi zuen, bularra emanez, heriotza-zigorraz zegoen aitak ikus zezan. Aita bizirik irten zen Matxitxako batailatik. Beren ontzia hondoratu zenean, txalupatan sartu ziren, eta han harrapatu zituen Canarias ontziak.

## 8. Nabarra ontziaren estrategia

- **Erref**: BRM-040/020
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:27:24. **Bukatu**: 00:29:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Eguraldi txarra zen itsasoan. Canarias itsasontziak distantzia handiko kanoiak zituen; Nabarrak, aldiz, ez. Horregatik, Nabarra ahal zen guztia hurbiltzen ahalegindu zen, nahiz eta jakin bizitza jokatzen ari zirela. Azkenik, Canarias itsasontziak hondoratu egin zituen. Saiatu arren, ez dute Nabarra itsasontziaren hondarrik aurkitu ahal izan.

## 9. Aita heriotza-zigorrarekin luzaroan

- **Erref**: BRM-040/021
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:29:17. **Bukatu**: 00:30:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
1937ko martxoaren 5ean izan zen Matxitxakoko Bataila. Harrapatu zituzten marinelak, tartean aita, 1939ra arte egon ziren heriotza-zigorrarekin. Beste ontzi batek lortu zuen Bermeora sartzea, Canarias ontzia kostako kanoien beldur zelako.

## 10. 'Donostia' ontzia ihesi Arcachonera

- **Erref**: BRM-040/023
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:32:44. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Donostia Bou errepublikazalea Arcachonera joan zen ihesi, Canarias atzetik zuela. Baina Canarias ez zen ausartu tirokatzera, beste estatu baten uretan zeudelako. Pasaian sartu zen Canarias ontzia Nabarrako atxilotuekin, aita tartean. Handik Ondarretako kartzelara eraman zituzten.

## 11. Ondarretako kartzelako hezetasuna

- **Erref**: BRM-040/024
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:33:35. **Bukatu**: 00:35:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

**Laburpena**:
Marea gora zenean, ura sartzen zen Ondarretako kartzelan. Hezetasuna dela eta, aitak gorputz guztia ekzemaz beteta izaten zuen harrezkero. Bilboko alde zaharreko botikari batek egiten zizkion azalerako pomadak.

## 12. Botazioz erabaki momentuan fusilatu ala ez

- **Erref**: BRM-040/026
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:35:52. **Bukatu**: 00:37:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Botazioa egin omen zuten Canarias itsasontzian atxilotutakoak bertan fusilatu ala ez erabakitzeko; eta ezetz irten omen zen. Ondarretako espetxean sartu eta heriotza-zigorraz egon ziren 1939 arte.

## 13. Aita indultatu, hiru seme-alabaren aita zelako

- **Erref**: BRM-040/028
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:39:50. **Bukatu**: 00:40:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Francok Matxitxakon harrapatutako bat indultatzeko agindua eman zuen. Aita aukeratu zuten gudariek, hiru ume zituelako.

## 14. Indultatu ondoren, soldadu

- **Erref**: BRM-040/032
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:48:04. **Bukatu**: 00:49:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Aita-eta, Ondarretatik indultuaz atera zituztenean, urtebetez soldadu bidali zituzten. Gasteizen egon zen, Zalditerian. Arraindunen kamioian egiten zuen joan-etorria, ez zegoen ezertarako dirurik eta.

## 15. Ontzitik uretara jausi hamar urterekin

- **Erref**: BRM-040/033
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:49:01. **Bukatu**: 00:52:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

**Laburpena**:
Fraideetan ibili zen eskolan. Zortzi urterekin, goiz jaiki eta lantxoak egiten zituen, diru apur bat ateratzeko. Amari ematen zion guztia. Hamar urterekin hasi zen itsasora joaten. Behin, uretara jausi zen. Uger egiten zekielako salbatu zen. Ontzikoak konturatu zirenean, buelta hartu eta onik atera zuten.

## 16. Osaba, Irujo eta Agirreren bizkartzaina

- **Erref**: BRM-040/036
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:55:28. **Bukatu**: 00:58:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Aita eta Casablancako osaba urtero joaten ziren Bilbora jatetxe batera. Behin, manifestazio batekin egin zuten topo eta pankartan Irujo (Manuel) ikusi zuten. Pankarta utzi, osabarengana joan eta elkar besarkatu zuten Irujok eta osabak.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-01*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com